

EUSKAL-ERRIKO PERLAK 1

(MADAME D'ABBADIE-RI.)

Dizdizariak, egiazkoak,
 Jaunak Zerutik botatakoak,
 Odeiak ura daukan bezela
 Euskal biotzak gordetakoak,
 Dira:¡malkoak!..Isurtzenditu
 Gau eta egun mundu osoak,
 Baña neretzat eztira iñon.
 ¡Euskal-errian bezelakoak!....

¡O erri maite maitagarria
 Malko iturri gustiz garbia,
 Maitasunaren, sentimentuen
 Eta negarren kabi chikia!
 ¡Pena bat daukat! siñistanazu,
 Zuri begira ¡ai! etorria,
 Gaur edo bigar zu emen utzirik
 Zeruetara ¡gabe! joatia.

¡O Jaun aundia! ¿Zer dá Zureta
 Zeru ederra onat jañtia
 Ikusirikan nere erriak
 Dizun maitasun paregabia,
 Ikusirikan onen Fedia
 Dena garretan irazekia,
 Ikusirikan ¡Aita laztana!
 Zurea dala guzti-guztia?

¡Begirakitza Zeru-goietik,
 Zure Ama du bere jabia!
 Beti elkarrekin izango dira
 Euskal-erria eta Maria!
 Ta lur ontatik Amerikara
 Dijoanean Euskal-umia
 Anchen darama bere kolkoan
 Amacho onen kutun eztia!

¡An!.. besoetan aurchoa zala,
 Euskaldun amak jarritakoa
 Erakasirik bere aurrari
 ¡Jesus! esaten ¡Izen gozoa!
 Erreguturik Kristau-Legean
 Ez bizitzekotz aingeruchoa
 Ill dedilla ¡bai! ... beso aetan
 ¡Egin dezala betiko loa!

Orazio au Zerura joanik
 Zerutik dator malko tantoa,
 Eroririkan perla eder onek
 Esnatutzendu ume gañsoa,
 Eta ikusirik amaren negar
 Eta arpegi dolorezkoa,
 Aur chikiari jaiotzenzaio
 ¡Beste perla bat ederragoa!

(1). Moldaera au bialdua izan zen 1888-an Marquinan izantako Euskal-itz-jostaldietara.

Azitzen dator; beste ama bat
 Irrentzenzaio bere bidera
 Mundu ontako gauz on guztiak
 Maitagarriro ager tutzera,
 Jaun bat, Lege bat eta Erri bat
 Nola dituen erakustera,
 Mundurik-mundu gure artean
 ¡Sekulan illko eztan ¡Euskera!!

¡O nere Ama! Etorri zera
 Gaur gu Markinan laztandutzera,
 Etorri zera zure semeak
 Pozaren pozez choratutzera,
 Etorri zera zure lengoko
 Atsekabeak chit aztutzera,
 D'Abbadie jaun ta sari emalleak
 ¡Malko batekin eskertutzera!

Baña... ¡O Ama! ¡Ama Euskera!
 Zure semeak goaz iltzera,
 Sufrimentuak bialdzengaitu
 ¡Zeruan zutaz itz egitera!
 Sufritu degu aski ¡Amacho!
 Baldin gaiztoak izan bagera
 Iltzerakoan zugana gatoz
 ¡Arren! gauza bat zuri eskatzera.

¡Ama Euskera! ain ona zera
 Adituzazu gure erregua,
 Zure aurrean egiten degu
 Azkenik gure testamentua,
 Paper beltzean, malkoz bustirik,
 Gure eskuak izkribatua,
 Agoniako ordu estuan
 Animatikan jaiotakua.

Esanzaiezu gure aurrari,
 Gutaz galdetzen duten, orduan,
 Gu ill giñala ezin bizirik
 ¡Euskal-Legea! galdu damuan,
 Lege santu au daukatela gaur
 ¡Oitura onak! beren barruan,
 Ta ¡zu! zaudela, sekuletako,
 Jaunak jarria oen kontuan.

Esanzaiezu ill arteraño
 Bizitzeko ¡bai! mendi onduan
 Erakutsirik ¡Ama garbia!
 ¡Zér usteltasun dagon Munduan!
 ¡Esanzaiezu beren biotzak
 Idukitzeko beti Zeruan,
 Isuririkan malko tristekak
 Gure ezurrak diren lekuan!

¡Ama Euskera! ¡Ama Euskera!
 Orra non diran gure umeak,
 ¿Zér? ¿ez dituzu ezagututzen?.....
 ¡Negar gizonak! ¡negar andreak!
 ¡Negar gizonak, lotsarik gabe!
 Lotsaturikan ez egiteak,
 ¿Biotza ere igartu digu
 Izandu degun doakabeak?

¡Ez milla bider!.. ¡Atoz malkoa!
 Itzakin eziñ esantakoa
 Zergatik zeran isill-isillik
 Izkuntzen izkuntz gaiñ-gañekoa,
 Zergatik zeran ¡O ur tantoa!
 Sentimentuen itsas beroa
 Zeiñaren bagak mugitzenduten
 Gure animen onzi gaixoa!

¡Atoz! ... Zu gabe ontzi gaíso au
 Ondar leorrez ingurutua
 Eztakit nola joan al liteken.
 Ikutuzera Zeru-portua,
 Baña badakit malko batean
 Joaten bazaio ¡umill! sartua
 ¡Besoak zabal! datorkiola
 ¡Gure Jaungoiko errukitsua!

¡O nere erritar biotzeltoak
 Ainbeste negar egintakoak!
 ¡Azi ditzagun ¡zuzen! aurchoak
 Erakutsirik gure malkoak!
 ¡Ederrak dira dolorezkoak!
 ¡O!... eta ¡zéñen baliosoak!...
 Munduan orla bizitakoak
 Dirá Zeruan ¡zorionekoak!

ANTONIO ARZÁC ETA ALBERDI.

TRADUCCION LITERAL.

PERLAS DEL PAIS EUSKARO.

(Á LA SRA. D' ABBADIE).

Brillantes, verdaderas, echadas por Dios desde el Cielo, encerradas en el corazon euskaro como el agua en la nube, son ¡las lágrimas!... El mundo entero las derrama noche y dia, pero para mí en ninguna parte son como en la Euskal-erria!...

¡Oh pais querido y signo de serlo, fuente purísima de lágrimas, pequeño nido del cariño, de los sentimientos y del lloro! abrigo una pena! créeme, nacida al mirarte: ¡ay! y es el tener que dejarte aqui hoy ó mañana subiendo á los Cielos ¡sin tí!

¡Oh gran Dios!... ¿Qué es para tí el bajar aquí ese hermoso Cielo, viendo el incomparable amor que te tiene mi país, vista su Fé toda encendida en llamas, viendo ¡Padre amado! ¹ que todo, todo² es tuyo?

(1) La voz bascongada *laztana* dice más que *amado*: es, en cierta manera, como *abrazado amando*.

(2) Repetición muy espresiva del bascuence superior al superlativo

Mírale desde el alto-Cielo, tu Madre es su dueña! ¡Siempre estarán unidos el país Euskaro y Maria! y cuando el jóven Euskaro va de su tierra á América ¡allá lleva en su seno el escapulario miel ¹ de esta Madrecita!

Puesto por su euskara madre, ¡allá!... en sus brazos, cuando era niño, al paso que le enseñaba á pronunciar ¡Jesús! ¡dulce nombre! rogando que para no vivir dentro de la Ley Cristiana su angelito, muriese ¡sí! ..., en aquellos brazos ¡quedase dormido para siempre!

Sube al Cielo esta plegaria y del Cielo baja una lágrima, cae esta hermosa perla, se despierta el pobre niño, y al contemplar el llanto de su madre y la espresion de dolor de su rostro, nace en el del niño ¡otra perla más hermosa todavía!

Va creciendo; otra madre le sale al encuentro, á descubrirle amablemente todas las cosas buenas de este mundo, á enseñarle cómo tiene un Señor, una Ley y un País, la que mientras el mundo sea mundo nunca morirá entre nosotros, nuestra lengua ¡Euskera!!

¡Oh Madre mia! Has venido á abrazarnos hoy en Marquina, has venido á enloquecer á tus hijos á fuerza de júbilo, has venido á hacernos olvidar por completo nuestras desdichas de otros días, á manifestar tu agradecimiento ¡con una lágrima! al Sr. d'Abbadie y á los que dan premios por ti.

Pero ¡Oh Madre! ¡Madre Euskera! tus hijos vamos á morir, el sufrimiento nos envía ¡á hablar de ti en el Cielo! hemos sufrido bastante. ¡Madrecita! si es que hemos sido malos, y al morir venimos adonde ti á pedirte ¡por Dios! una cosa.

¡Madre Euskera! eres tan buena, escucha nuestro ruego, ante ti hacemos por último nuestro testamento, escrito de nuestra mano en papel negro mojado con lágrimas, nacido del alma en la suprema hora de la agonía.

Dí á nuestros hijos cuando pregunten por nosotros, que nosotros

(1) En bascuence cuando una cosa es dulcísima se dice que es miel (*eztia*.)

morimos ¡sin poder vivir! por el pesar de haber perdido la ¡Ley Euskara!, que esta Ley santa la tienen hoy en sus entrañas las ¡buenas costumbres! y que ¡tú! estás puesta por Dios para cuidar siempre de estas.

Biles que hasta la muerte vivan siempre ¡sí! junto à sus montañas, mostrándoles ¡Madre purísima! la podredumbre que el mundo encierra! ¡Diles que sus corazones los tengan siempre puestos en el Ciclo, y que derramen tristes lágrimas en el lugar en que reposen nuestros huesos!

¡Madre Euskera! ¡Madre Euskera! ahí los tienes, mira à nuestros hijos! ¿Qué, no los conoces? .. ¡llorad hombres! ¡llorad mujeres! ¡llorad sin vergüenza hombres! avergonzándoos de no hacerlo, ¿hasta el corazón nos ha secado ó empedernido la desgracia que hemos tenido?

¡No mil veces! Ven lágrima! tú que no puedes ser expresada por medio de la palabra porque eres, en silencio, la lengua más superior de todas las lenguas, porque eres ¡oh gota de agua! abrasado mar de nuestros sentimientos, cuyas olas mueven ¡la pobre nave de nuestra alma!

¡Ven! sin ti esta pobre nave, rodeada de seca arena, no sé cómo podrá llegar à tocar el puerto-Ciclo, pero sé que si metida en una lágrima se le presenta humilde, ¡con los brazos abiertos! viene à recibir la nuestro compasivo Dios!

¡Oh paisanos míos de mi corazón que tanto habeis llorado! ¡Eduquemos rectamente à nuestros hijos mostrándoles nuestras lágrimas! ¡Son hermosas las del dolor! ¡Oh!... y ¡cuán grande es su precio!.. Los que en el Mundo viven así, son en el Cielo ¡bienaventurados!

